

1. FUNTSEZKO ELKARTEAK



Enpresa bateko negozio-ereduak funtziona dezan, bazkide eta hornitzaile nagusiak zehaztea oso garrantzitsua da. Gure proiektuaren kasuan, bidaia agentzia desberdinekin tratua egitea oso garrantzitsua da, eta hau tokiaren arabera izan behar du, honen adibide da “Halcon Viajes” edo eta “Eroski bidaiak”. Hotelen kasua ordea desberdina da tokiaren, egunaren eta gastatu nahi den diru kopuruaren arabera. Horretarako, gure webguneak hotel edo hostatu desberdinekin kontaktatzeko aukerak emango ditu, adibidez “Trivago”. Horrezgain, gure webgunearen bidez, jarduerak aurrera eramateko behar diren tokiekin adostu behar dira. Adibidez jarduera bat puenting egitea bada, hori planeatzen duen enpresa baterekin elkar lanean jarriko ginateke. Toki hauetako zerbitzuak erabiltzean gure zerbitzuetako enpresen arteko elkar eragina sortuko da eta horrela harremanak sortuz.

Gainera aplikazio bat sortzeko trebea den norbaiten beharra dugu eta jendearen laguntza beharko genuke horretarako. Hori ahalbidetzeko enpresen arteko tratua egiteaz gain jendearen arteko elkarteak sortuko dira, blogaren jarraipenean eta laguntzan lan egiteko batez ere.

